**Esp.kodea:** 2021DPRE0001

**Gaia:** 2022 URTEKO UDAL AURREKONTUA
**Hasiera eguna:** 2021/12/01

## ZIURTAGIRIA

**Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA**

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2021eko abenduaren 14an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

"**<u>2022 URTEALDIRAKO UDAL AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA (2021DPRE0001)</u>.**

Udal Plenoak, Barne Antolaketaren Batzordearen diktamena ikusirik, aldeko 12 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE), aurkako botu batekin (ELKARREKIN ARRASATE-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak) eta 8 abstentziorekin (EH BILDU), emendakin partzialak onartu ondoren honakoa akordio hartu du:

"Udal gobernuak aurkeztutako 2022 ekitaldirako aurrekontuen proiektua aztertu eta eztabaidatze prozesua burutu eta gero, hasiera batean, informazio batzorde bakoitzari dagozkion partidak eta gorabehera nagusien azalpenak emanda, eta, gero, Barne Antolaketaren batzordean adostutako prozesuarekin, aipatu proiektua diktaminatu da Udaleko Osoko Bilkuran gaia jorratzeko.

Gastuen atalari dagokionez, proiektu horrek oinarria du udal sailek egindako eskaeretan, eta sarrerei dagokienez, udalak hartutako erabakietan gehi beste administrazioetatik jasotako informazioetan.

**Barne Antolaketaren batzordean aztertu eta alde bozkatu da 2022 ekitaldirako aurrekontu proiektua, zenbateko hauekin: hogeita hamazazpi milioi sei ehun eta berrogeita hamazazpi mila eta berrehun eta laurogeita hamaika euro eta hamazazpi zentimo (37.657.291,17 €).**

**Udalbatzarrak aurrekontuen emendakin partzialak bozkatu eta onartu ondoren** UDALAREN 2022ko EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORRA, **hogeita hamazazpi milioi zazpi ehun eta hogeita hamazazpi mila eta berrehun eta laurogeita hamaika euro eta hamazazpi zentimokoa da** (37.737.291,17 €).

Udal Plenoak, Barne Antolaketaren Batzordearen diktamena ikusirik eta emendakin partzialak onartu ondoren honako akordioa hartu du:

1.- Hasiera batean onartzea 2022eko ekitaldiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu UDALAREN beraren AURREKONTUA, aurrekontuaren exekuzio arauekin batera, eta udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkotzat jotako erreklamazioak aurkeztu ditzaten, 15 egun baliodunekoepean, jende aurrean erakusteko, iragarkia argitaratzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko, aldi horretan erreklamaziorik jaso ezean aurrekontuaren aurka."

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2021eko abenduaren 30ean.

O.E.

Alkatea

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
MARIA UBARRECHENA CID
30/12/2021

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
ANA BELEN HIDALGO CORRAL
30/12/2021

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko otsailaren 2a, asteazkena — 21 — Miércoles, a 2 de febrero de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ARRASATEKO UDALA

**Kontu-hartzailetza**

*Iragarkia*

2022ko ekitaldiari dagokion Aurrekontu-espedientea jende aurrean agerian egoteko arauzko epea igarota, inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu ez denez, eta Udalbatzarrak, 2021eko abenduaren 14an eginiko bileran, hartutako akordioaren arabera, aipatutako aurrekontua behin-betiko izaeraz onartuta gelditu da, ondoren, Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko indarrean dagoen Araudiak ezarritakoa betez, bere Kapitulukako laburpena argitaratzen da:

Udal Aurrekontu Propioaren kapitulukako laburpena:

A) 2022 EKITALDIKO UDAL AURREKONTU PROPIOA

*GASTUEN EGOERA*

| *Kapitulua* | *Izena* | *Euroak* |
|---|---|---|
| 1 | Langileen ordainsariak | 12.289.729,52 |
| 2 | Ondasun arrunten eta zerb. erosk. | 12.553.482,47 |
| 3 | Interesak | 2.100,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 5.053.522,26 |
| 5 | Kreditu globala | 320.870,41 |
| 6 | Inbertsio errealak | 5.535.393,47 |
| 7 | Kapital transferentziak | 1.864.993,04 |
| 8 | Finantz aktiboen aldaketa | 117.200,00 |
| 9 | Finantz pasiboen aldaketa | 0,00 |
| | *Gastuak guztira* | 37.737.291,17 |

*SARREREN EGOERA*

| *Kapitulua* | *Izena* | *Euroak* |
|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko zergak | 6.931.000,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 900.000,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 7.464.600,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 18.193.481,17 |
| 5 | Ondare sarrerak | 208.910,00 |
| 6 | Inbertsio errealen inorenganatzea | 1.751.100,00 |
| 7 | Kapital transferentziak | 591.000,00 |
| 8 | Finantz aktiboen aldaketa | 117.200,00 |
| 9 | Finantz pasiboen aldaketa | 1.580.000,00 |
| | *Sarrerak guztira* | 37.737.291,17 |

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Arrasate, 2022ko urtarrilaren 28a.—Maria Ubarretxena Cid, alkatea. (519)

## AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Intervención**

*Anuncio*

Finalizado el período de información pública del expediente de Presupuesto General para el ejercicio 2022, sin que haya sido presentada alegación o reclamación alguna, y de conformidad con lo dispuesto en el acuerdo plenario de fecha 14 de diciembre de 2021, ha quedado definitivamente aprobado el citado presupuesto, publicándose a continuación, en cumplimiento de lo previsto en la Normativa Presupuestaria Vigente, un resumen por capítulos del mismo:

Resumen por capítulos del Presupuesto Propio:

A) PRESUPUESTO PROPIO DE LA CORPORACIÓN EJERCICIO 2022

*ESTADO DE GASTOS*

| *Capítulo* | *Denominación* | *Euros* |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de personal | 12.289.729,52 |
| 2 | Adquisición bienes ctes. y servicios | 12.553.482,47 |
| 3 | Intereses | 2.100,00 |
| 4 | Transferencias corrientes | 5.053.522,26 |
| 5 | Crédito global | 320.870,41 |
| 6 | Inversiones | 5.535.393,47 |
| 7 | Transferencias de capital | 1.864.993,04 |
| 8 | Variación de activos financieros | 117.200,00 |
| 9 | Variación de pasivos financieros | 0,00 |
| | *Total de gastos* | 37.737.291,17 |

*ESTADO DE INGRESOS*

| *Capítulo* | *Denominación* | *Euros* |
|---|---|---|
| 1 | Impuestos directos | 6.931.000,00 |
| 2 | Impuestos indirectos | 900.000,00 |
| 3 | Tasas y otros ingresos | 7.464.600,00 |
| 4 | Transferencias corrientes | 18.193.481,17 |
| 5 | Ingresos patrimoniales | 208.910,00 |
| 6 | Enajenación inversiones | 1.751.100,00 |
| 7 | Transferencias de capital | 591.000,00 |
| 8 | Variación de activos financieros | 117.200,00 |
| 9 | Variación de pasivos financieros | 1.580.000,00 |
| | *Total ingresos* | 37.737.291,17 |

Este acuerdo es definitivo y pone fín a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

Mondragón, a 28 de enero de 2022.—La alcaldesa, María Ubarretxena Cid. (519)

EK\CV GAO-I-2022-00519